

**ZOR PRIBATUA, GEZUR PUBLIKOA ETA ESKUBIDE LABORAL ETA SOZIALEN SUNTSIPENA.
SINDIKATUA, GURE BABES BAKARRA**

KATASTROFE POLITIKOA. Ezkerra eta eskuina batuak, inoiz ez garaituak. Zoritxarrez, politika bera egiten dute. Hau katastrofe politiko bat da, eta ez dut astakeriarik esan. Ondorio sozial ezin larriagoak ditu honek. Kapitalak instituzio eta alderdiak banako lerroan jartzen ditu, bere esanetara egon daitezten. Europak porrot egin du, goitik behera; gizarte-politikak deuseztatzeko aitzakia antidemokratiko bihurtu dute. Gero harritu egiten dira eskuin muturra, arrazismoa edo xenofobia hasten direla ikusita.

Europa amerikanizatu nahi dute, AEBetako eredua ezarri. Nahi dutena argi dago, berdin izatea gobernuan nor dagoen, demokrata zein errepublikano, sozialdemokrata ala kontserbadore; akabatu egin nahi dituzte gizarte-eredua (zergarik ez ordaindu) eta aberastasuna banatzeko tresnak (negoziazio kolektiboa da horietako bat) Botere ekonomikoak jarrera psikopatak ditu, eta ez du inongo zalantzarik onartzen: erabateko menpekotasun politikoa exijitzen du, baita lortu ere. Larrialdi sozialeko une honetan ere proposamen latzak, beldurgarriak botatzen ditu.

Zein unetan bizi gara? Ez da zaila azaltzea harrapaketa bat nola egiten den. AMAIURrek Espainiako gobernuari eskatu dio eman ditzala Estatuko zor publikoa duten 50 izen handienak eman ditzala. Interesgarria litzateke hau ezagutzea. Badakizue gobernuak zer erantzun duen? Gai erreserbatua dela. Izan ere, izenak argitaratuz gero, etekina nork ateratzen duen jakingo baikenuke. Adibidez, zein finantza-erakunde ari den zor publikoarekin espekulatzen: EBZtik dirua %1ean hartu eta %6ean emanez. Konspirazio bat pairatzen ari gara, banku eta gobernuen arteko konspirazioa. Bankuei edozer ametitzen zaie. Konstituzioa erreformatu dute estatuaren lehentasuna espekulatzaileei ordaintzea izan dadin. Aurrekontuen Egonkortasunerako lege bat egin dute administrazio guztiek gizarte-gastua eta enplegua murriztu dezaten, eta diru hori zorraren interesak ordaintzeko erabiltzen da. Hori ez dugu onartzen; zilegizkoa ez den zorra ez dago zertan ordaindu. Gainera, PPK erabaki du -lehenago Zapaterok ere egin zuen- murrizketak ezartzeko modua oinarri-legea izatea, hots, estatuko administrazio guztiak gauza bera egitera behartzea. Politika bakarra Estatu guztian. Administrazio bakoitzari, dituen eskumenen arabera, zer egin behar duen esaten diote.

Hori gutxi balitz, NMFk dio diru publiko gehiago behar izango dela banketxe pribatuak “saneatzeko”.

Murrizketarik murrizketa, osasungintza eta hezkuntza itxuragabe ari dira okertzen. Arlo publikoa txiki-txiki eginda uzten dute, pribatizaziotik etekinak lortzen dituztenen mesedetan. Horixe da beste helburu ezkutua. INVERCOk, pentsio-funts pribatuen patronalak, esan zuen “zegoen prestazio publiko mailarekin ezinezkoa zen negozioa egitea”. Pentsioak murriztu beharra zegoen, eta politikak 2010eko urtarrilean egin zuen hau (orain beste murrizketa bat ari dira prestatzen). Eta hain zuzen, osasungintza publikoa hondatzen ari diren bitartean, osasungintza pribatuko patronalak gauza bera dio: “Une bikaina dugu gure negozioa hedatzeko”. Inposatzen diguten sakrifizioak putre hauen negozioa handitzen du. Osasungintza unibertsala ez izatea, eta okerragoa, hori da gu aseguru pribatuak kontratatzerara behartzeko modua.

Baina erabaki hauek gauzatzeko beharrezko lankide batzuk badira: alderdi handien elite politikoak. Badakite arazoa benetan banketxeena dela; badakite zorra batez ere pribatua dela. Nahi adina espekulatzeke aukera eman zieten; ukatu egin zuten burbuilarik bazenik (adibidez, etxebizitzan), eta erabaki dute eragindako zulo beltza guztion artean ordainduko dugula, eskubide laboral eta sozialak murriztuz. Zorrak pribatuak dira, eta gezurrak, publikoak. Gogoan al dituzue banketxe eta aurrezki-kutxei egin zizkieten testak?

Orduan estatuko finantza-erakundeak “Europaren inbidia” omen ziren. Agintari batek ere ez zuen azaldu banketxe eta kutxek balantze puztuak aurkezteko aukera izan zutela, higiezinak (desjabetze eta zapuztutako proiektuekin zeharo haziak) burbuila lehertu aurreko prezioetan eman baitzituzten. Gezur publikoak; gezur zigorgabeak.

Bada, kakanahaste honen arduradunek, eurek, murrizketa sozialak eskatzen dituzte. Banketxeetako akziodunek hutsegite horien erantzukizunik hartzen al dute beren gain? Ezta bat ere. Diru publikoa horretarako baitago. Ekonomia kolapsora eraman dute eta kapitalari eskaini diote eskubide sozial zein laboralei egindako eraso, inoiz ezagutu gabekoa.

Zein da honen guztiaren gakoa? Eragin duten hondamenditik etekina ateratzea. Kapitalak elite politikoak bere esanetara dauzka. Politika honek hartu duen rola lotsagarria da. Alderdi handiek berdin jokatzeko dute boterera iritsita: EBrekin **hitzartutako** politika ezarri. *Bai*, hitzartu egiten dute. Lehenik gobernuek erabaki egin zuten, eta gero hitzartu, aurrena Zapaterok eta orain Rajoyk. Zapaterok adostu zuen defizit publikoa 2013rako BPGaren %3ra jaitsi beharra zegoela; Zapaterok eginarazi zuen helburu hori iritseei Konstituzioaren erreforma... Zer alde dago “oposizioan” daudenean? Politikaren antzezpenerako erabiltzen duten diskurtsoa; besterik ez.

Orain PSOEek, ezin hipokritago jokatu, Aurrekontuen Egonkortasunerako Legeari ezezkoa eman dio, baina ez erabat aurka dagoelako, ez. PPK 2020rako defizitean Ora iritsi nahi du, eta PSOEek, berriz, 0,4ra. Hori al da desberdintasun guztia? Lotsagarria da. Baiezkoa ez dute eman PPren botoak aski direlako. Bestalde, EAJk abstentzioa hautatu du, esanez EAEko eta Nafarroako erregimen ekonomikoaren berezitasunak “bermatu” dituela; bitartean, Moncloako Itun berri bat eskatzen du krisiari aurre egiteko, badakien arren Rajoyren erabaki guztiak basikoak izango direla... Barregarria litzateke, hain larria ez balitz.

Alderdiok blindajea dute helburu; korporatiboak dira. Euren kezka bakarra guk nabarmen uztea da. Hala esan zuen enpresen interesekin lotuta dagoen “aditu” batek: “Kaltetunek protesta egitea saihesteko modu bakarra gaur egungo kontsentsu politikoa baino askoz ere zabalagoa lortzea da”. Kontsentsu horrek, noski, ezin ditu botere ekonomikoaren interesak zalantzan jarri. Kontuz ibili beharko lukete: kaleko jendeak antzematen baitie txotxongiloak bezala erabiltzen dituztela; jabetzen baitira hauteskundeetako antzerkiak. Hauteskunde-programek ez dute zerikusirik gobernu-ekintzarekin. Jendea konturatu da fartsa hau oso garesti ordaintzen ari garela.

Greziaren bidetik goaz, arlo guztietan. Datorren txirotzean eta klase politiko horren ospeak duen gainbeherari dagokionez ere bai.

ESTATU NEOZENTRALISTA. OINARRI-LEGEAK POLITIKA ANTISOZIALETARAKO. Eskumenak erabat hustu dituzte. Oinarri-lege arbitrarioen bidez Estatuari itzuli nahi diote edozertan erabakitzeko ahalmena. Duela urte asko ezaguna genuen oinarri-legeen sistema, baina inoiz ez ziren hain urrun iritsi. Eta inoiz ez du inoluzioak hain lotura zuzena izan auzi sozialekin, euskal herritarren bizi-kalitatearekin. Auzi soziala, bai; gai sozialak jendearen kezken artean erdigunean daude. Euskal klase politikoarentzat hau harritzekoa al da? Bai. Auzi sozialak, hoberenera jota hauteskundeetarako argudio erretoriko bihurtzen direnak, Politika errealean ez du kezka praktikorik pizten.

PSE-EE, EAJ, UPN eta BILDU Rajoyren erabakiak aplikatzeko prest ote daude? Beste batzuri “pase forala” aplikatzea eskatu dute, eurek dagozkien ardura instituzionaleko esparruetan. Hala egiten baduzue, ez zaitezte saiatu neozentralismoaren neurrira egindako lege

horietan babesa bilatzen. Hau ez da argudio berri bat. Egiten baduzue, eurek bezalakoak izango zarete.

Egiten baduzue, jarraipena izango duen agenda lazgarri baten protagonista izango zarete. Auzia ez da juridikoa. Aitzitik, lehen mailako eztabaida politiko bat da. Gai sozialetan eragiten du eta euskal administrazioak Madrilgo ordezkaritza administratibo huts bihurtzen ditu; erabakitzeko aukera oro ukatzen die. Benetan... Hau onartzeko prest al zaudete? ELAk dio jarrera otzan eta menpekoak hautatuz gero ez dela ibilbide sozial ez politiko alternatiborik izango. Erabaki antisozial horiek betearaziaz ez dago taxuzko prozesu subiranistarik. Euskal alderdiek argi erantzun behar diote galdera honi... Harik eta hauteskundeak igaro arte oreka kalkulatu bat bilatzen saiatzeak ez du balio; ez digu balio.

“Bestela pentsatuz gero, ez ezazue berdin jokatu”, esan genuen greba orokorreko egunez. Zer egin behar duzuen esaten dizuete, gauza guztietan. Defizitaren muga, aurrekontuen murrizketak, osasungintza, hezkuntza, enplegua suntsitzea, pertsonal politika, Gasteiz eta Iruñeko parlamentuek onartutako legeak urratzen dituen lanaldi luzapena, soldata jaitsierak, akordio sindikalak ez betetzea... Besterik ba ote dago? Hau guztia onartzeak edozein erabaki-esparruri uko egitea esan nahi du.

Baina batzuk izugarritzko azala dute. Adibidez, Patxi Lopezek. Ostiralean jakinarazi zenean langabezia berriro hazi dela -Hego Euskal Herrian %16an gaude dagoeneko-, Lehendakariak esan zuen datuok segurtasuna ematen diotela murrizte-politika ez aplikatzeko. Beraz, behar bada honez gero bere gobernu guztia kargutik kendu eta berak dimititu egingo zuen. Izan ere, Jaurlearitzak urteak baitaramatza gastua murrizten: osasungintzan, hezkuntzan, etxebizitzan eta gizarte-prestazioetan. Atal batean izan ezik: elkarriketa sozialeko bere lagunei bideratzen zaien kopuruetan. A zer hipokrisia!

Agian euskal klase politikoak ez zuen espero gizarte-gaiak hainbesteko pisua hartuko zuenik gure herrian politika egiterakoan. Haustekunde-esparruetako norgehiagoka -betiere zilegi dena- arlo soziala bigarren mailan kokatuta egin nahi dute, eta guretzat gai sozialek inoiz baino lehentasun handiagoa eskatzen dute. Jarrera politiko tinko eta sinesgarri bat eskatzen dugu. Murrizketak ez egitea da sinesgarri izaten hasteko modua.

Oraingoan ere ez ote dira behin betiko ondoriotara iritsiko? Estatuak koherentziaz jokatzen du eta edozein aukeraz baliatzen da Espainiaren bere eredia finkatzeko. Krisia lagun dutela, Estatuak autogobernua karikatura huts bilakatu nahi du. Aukera egin behar da: Politikari izan, ala beste inork hartutako erabakien betearazlea. Gai hauekiko eztabaida politikoa iristen ez den etorkizun batera atzeratzea Euskal Herriari egiten zaion iruzur politikoa da, eta ELAk salatu egingo du.

FISKALITATEA eta SOLIDARITATEA. Harrigarria da Rajoyk PFEZean eta Sozietateen zergan euskal ogasunek baino gehiago egin izana. Ekonomia-Itunaz eta Hitzarmen Ekonomikoaz egiten den erabilpen antisoziala salatu behar da. Arau-emateko ahalmena patronalaren eskariak betetzeko erabiltzen da. Zoritxarrez ez dago aldaketarik, eta hau berdin gertatzen da Bizkaian, Gipuzkoan, Araban zein Nafarroan. Desberdintasunak xehetasunetan daude. Oso larria da, latza, behar soziala inoiz baino handiagoa delarik gure Ogasunek opari fiskalak bertan behera uzteko aukerari uko egitea eta iruzur fiskalarekiko ez ikusiarena egitea.

Ekonomiaren hazkunde garaian Ituna eta Hitzarmena errenta altuei eta kapitalen errentei zergak jaisteko baliatu ziren. Orain fiskalitatea indartuta politika solidarioagoa ezinbestekoa da, baina interes berberak defenditzen dituzte.

Zer egiten dute Ogasunek? Notario lana besterik ez, biltzen den dirua gutxitzen ari dela diotenean. Oraintsu esan du Gipuzkoako Ogasun diputatuak: 2012an aurreikusita zegoena baino gutxiago bilduko da; zergetan epe laburrean ez dira aldaketak egingo, eta murrizketa gehiago egin behar izango da. Nafarroan ere horixe esaten dute.

Zergen gaia gauza fribolo bat bihurtu dute. Ez da ezer egiten, eta eztabaidetan, benetako parte hartze sozialik gabe, prentsarako titularra bilatzen dute soilik. Ardura instituzionalik ez duten tokian proposamen itxuraz progresistak egiten dituzte, eta ardura dutenetan gauzak bere horretan uztea onartzen da. Lehendakariak badaki komunikabideetarako itxura hutsezko ekarpenak egiten. Eta hau dena patronalak badaki.

SOLDATAK JAISTEKO ERREFORMAK. Suntsitzen ari den enpleguari beste eraso bat gehitu behar zaio, soldatei eta lan-baldintzei egiten ari direna. Horretarako egin dituzte erreforma laboralak eta negoziazio kolektiboaren erreforma. Erreformek negoziazio kolektiboa, ezagutzen genuen modukoa bederen, txikitu egin dute: Hemendik aurrera ezer ez da berdina izango. Horretarako egin dute, soldatak merkatzeko, malgutasun handiagoa lortzeko eta gure defentsa kolektiboa ahultzeko. Ultraaktibitatearen amaiera, hitzarmena aplikatzeko salbuespenetarako erraztasunak, soldatak jaisteko hainbat aukera, sektore-hitzarmena gutxieneko maila gisa bermatzeko debekua.

Sektorea ez da jadanik gutxieneko oinarria. Soldatak jaiste aldera erabaki dute hori. Ez dakit honek zenbaterainoko hondamena ekar dezakeen. Ba ote dakigu aldaketa bakoitzak negoziazio kolektiboan dituen ondorioak? Oso gogorrak dira.

Ondorio horretatik hasita... Zein da erreformak botatzen digun erronkarik handiena? Zuzenean esaten digu: antolatzeko gai ez bazarete, sufritu egingo duzue; zuek eta zuen lan-baldintzek. Antolakuntzari buruz egin beharrekoaz galdegiten digu. Hori da atera beharreko ondorio nagusia. Ez gaitezen eskenatoki birtualetan ibili; ez dugu ezer irabazten eskenatokiak asmatuz, are gutxiago patronalaren eskutik joanda, berak nahi zuen guztia lortu baitu eta xantaia egiten baitigu, pribilegiozko jarreran dagoela badakielako. Etsaia ez dugu gutxietsi behar. Erreforma hauek, Zapateroren eta Rajoyen erreformek, zein arazo eragiten dizkiguten ikusi eta hortik abiatuta egin behar dugu lan, aurre egiteko. Ezin dugu geure burua engainatu.

Soldatak jaustea ondorio izugarriak izango lituzke; batetik, enplegua dutenen bizikaltatearen kalterako, eta bestetik, lanpostu gehiago galduko liratekeelako. Gauza bera patronalak eskatzen duen bezala lanaldia luzatuz gero. Izan ere, zer bilatzen du patronalak? Lanean jende gutxiago edukita, ordu gehiago sartzea, malguago eta lan gehiago egiten dutelarik. Hori da bere produktibitate ikuskera: Enplegu gutxiago eta produkzio handiagoa. Joko hori onartuz gero lanpostu gehiago galduko lirateke. Patronalak honelako proposamenekin gauza bakarra defenditzen du, bere etekinak. Besterik ez.

Legeen bidez lan-baldintzak estatu-esparruetara eta enpresetara eramatea erabaki dute. Badakigu zentralizazioak euskal esparrukoak baino hitzarmen askoz okerragoak ekartzen dituela. Eta ugazabak sinetsita daude enpresa mailan baldintza okerragoak ezarri ahal izango dituztela, esparru horretan ahulezia sindikala dagoela uste dutelako; enpresarioentzat moldagarria da negoziazio era hori. Bada, ikusarazi behar diegu hori ez dela horrela; antolatzeko gauza bagara, ez dela sindikatua saihesteko erreformarik izango. Horrek, noski, konpromiso sindikal handia eskatzen du; eta proiektu kolektibo bati lotutako militantzia, betiere proiektu horrek nor defenditzen duen eta lanean norentzat ari den argi badauka.

Ez dago banakako irtenbiderik, ez nork bere lepoa salbatzeko modurik. Solidaritaterik ezak txikitu egiten gaitu. Defentsa kolektiborako gaitasuna da bide egokia; hots, lantoki

bakoitzean lor dezakegun antolakuntza maila. Hori da eztabaida; hori da sindikatua: interes jakin batzuk, gure interesak, defenditzeko klase-erakundea. Sindikatuak nortasun hau argi izan behar du, eta azaldu beharra dauka. Sindikatua beste ezer ez daukagu: indartsu izateko lortzen dugun afiliazioa besterik ez daukagu.

Negoiazio kolektiboaren emaitzak esparru bakoitzean lortzen den afiliazio mailaren arabera izango dira. Badakigu patronalak eskatzen zuena jaso duela, eta gehiago eskatzen ari dela. Sindikalismo indartsu batek bakarrik egin diezaioke aurre. Greba orokorrak izan zuen arrakasta antolakuntza finkatzeko baliatu behar dugu. Hau ezinbestekoa da.

Lan-baldintza txarrak eta ekintza sindikala. Nik baino hobeto ezagutzen dituzue. Esplotazio baldintzetan lanean ari den jende ugari dago: eguneko 12 orduko lanaldiekin, orduko 4 eta 5 euroko soldatarekin; enpresarioak ordutegia nahierara aldatzen duela; EREak aurkeztu ahala soldatak jaisteko xantaia egiten delarik; “hitzarmenetik kanpo” dauden langileak, onartu ezin diren baldintzekin; soldata jaistea onartu ezean Kamerunera bidaltzeko mehatxuak... Jende asko, lankide asko sindikatuaren beharrean dago. Eta enpresario asko prest dago erreformari esker pertsonak, gure jendea, salgai moduan erabiltzeko.

Enplegua eta hitzarmenak defenditzeko gatazkak bata bestearen atzetik bizi ditugu. DEMAN, Tubos Reunidos, Negarra, Urbaser, Tuterako lorazainak, Konecta (Iberdrolako azpikontrata honek langileak absentismoaren aitzakiaz kaleratu ditu), CAFeko garbitasuna, SOS Deiak, arlo publikoko mobilizazioak, Grupo Amma Nafarroan, Metroa, Jaietan Jai merkataritzako mobilizazioak...

Sindikalismoak lantokietan indarra behar du. Hauetan ez badago, enpresetan benetako pisurik ez badu, ez da inon izango, eta ez dute ezertarako balio sindikatu batzuri botatzen dizkieten loreak eta goraipatzen den jokabide 'arduratsua'.

ELA erronka horri aurre egiteko prest dago. ELAk baliagarri izan nahi du, eta bere klase-nortasunari leial. Gauza bat galarazi nahi dugu: Lan-baldintzak enpresarioek alde bakarreko erabakiz ezartzea.

Jende normala gara, eta gure nahiak ere normalak dira; lan duina nahi dugu. Ez gaude hemen esplota gaitzaten. ELAk bere egin dituen nahi logiko hauek indar sindikalaren arabera gauzatuko dira, eta sindikatuaren indarra guztiok gara.

Egiteko bakarra daukagu: afiliatu kopurua gehitu eta antolakuntza hobetzea, eduki horiei heltzeko prest dagoenarentzat. Argi dago sindikalizatu gabeko esparruetan ez dela negoziazio kolektiborik izango.

ALIANZA SINDIKAL ETA SOZIALAK. Ezinbestekoa da, gure iritziz, benetako krisi politiko bat eragitea, gai sozialei lehentasuna emateko. Etorkizunerako bide bakarra dugu. Otsailaren 25eko manifestazioak eta martxoaren 29ko greba orokorrak helburu hori zuten. Eta laster egingo direnek ere bai. Greba arrakasta sindikal eta soziala izan da, eta errealitate bat finkatzen du: Euskal Herrian esparru sindikal eta soziala bizirik dago, aldarrikapenak kaleratzeko ahalmena du, eta ez du onartzen erabilia izaterik. Grebak agerian utzi zuen politikaren eta jendearen arazoen artean dagoen distantzia izugarria. Horregatik esan genion klase politiko horri krisia hasi zenetik bost urte igarota aspertuta gaudela: ezin dute ustezko “ardura” baten izenean porrot egindako politikarekin jarraitu. Gezur gehiago ez dezatela bota.

Mobilizazioak ez ditugu egiten murrizketak aplikatzen dituztenak paseatzera atera daitezen; legitimitate pixka bat irabazi nahi dute hipokrisiaz jokatzeko dutelarik.

Aliantza sindikal eta sozial bat indartu behar da, proposamenak eta mobilizazio egutegia partekatzen duen aliantza; honek ezin dio inongo babesik eman murrizketak aplikatzen dituen botere politiko eta ekonomikoari. Elkarrekin lan egin eta gure proposamenak sozializatuko ditugu gizartea mobilizatzeko. ELA hori posible egiten saiatuko da.

Oso beharrezkoak gara. Lan sindikal eta sozialean ari zaretenoi egiten duzuen aitortu egin behar zaizue. Sindikatuaren militanteoi. Esker onez aitortu behar da egunez egun jende anonimoak egiten duen ezinbesteko lan hori. Zuen lan hori.

Adolfo Muñoz Sanz “Txiki”
ELAko idazkari nagusia
2012ko Maiatzak 1